

X. LILASTERKETAN, SAKANAKO EMAKUMEAK MARTXAN!

Arratsalde on guztioi, eta eskerrik asko gaurko deialdira etortzeagatik.

Martxoaren 8a dela eta, duela egun batzuk Sakanan kalera atera gara Euskal Herriko Mugimendu Feministaren deialdiekin bat eginez, bizitzak erdigunean jarri eta zaintzarako eskubide kolektiboak aldarrikatzeko.

Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko Udalak Martxoaren 8aren testuinguruan prestatu dugun programazioaren baitan, eta azken urteetan egin bezala, *Lilasterketa* antolatu dugu. Gainera, aurtengoa berezia izanen da, X. edizioa ospatuko baitugu.

Lilasterketaren bidez espazio publikoan emakumeon parte-hartzea sustatu nahi dugu, herriz herri elkarrekin jarduera fisikoa eginez kalera irtengo gara, gure eskubideak aldarrikatzeko jendarteko eremu guztietan: enpleguan, kalean, politikan, etxean, hezkuntzan, jaietan eta baita kirolean ere.

Horregatik, emakumeen parte-hartzea da ekintza honetan garrantzia handiena duena, gure presentzia erakusteko, 'hemen gaudela' esateko, denon artean aurrera joateko, gure ahalduntzearen bidean beste urrats bat gehiago egiteko.

Lilasterketa martxoaren 26an izanen da. Hona hemen aurtengo egitarauaren inguruko xehetasunak:

- Goizeko 09:30ean aterako gara oinez Irurtzundik.
- Arakilgo herriak bizikletaz eta gainontzeko herriak (oinez zeharkatu ondoren, 13:35h aldera iritsiko gara Iturmendira.
- Bazkaltzeko atsedenaldea egin eta gero, arratsaldean berriz ekingo diogu martxari:
 - o 15:25ean aterako gara Ziorditik; eta
 - o 15:45ean aterako gara Iturmenditik
- 16:30ean Altsasuko beheko bentan elkartuko dira bi zutabeak, ondoren Altsasura elkarrekin joateko. Altsasun zehar ibilaldi bat egin eta gero, 17:00etan amaiera-ekitaldia eta merienda edukiko ditugu Foruen Plazan.
- Bukatzeko, 18:00etan Pantxika Lamurren emanaldia izanen da Gure Etxean.

Lilasterketa doako jarduera da, eta parte hartzeko alde zuzenetik izena eman behar da:

- Altsasuko Berdintasun Zerbitzuan: 948 56 48 23 - 628 328 593 / berdintasuna@altsasu.net
- Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuan: 660 384 328 / berdintasuna@sakana-mank.eus

Google-eko formularioan ere eman daiteke izena (formulariorako lotura kartelean agertzen da).

Honenbestez, adin, kultura, herri... ezberdinetako Sakanako emakume guztiei dei egiten diegu *Lilasterketan* parte hartzera.

Aurtengo *Lilasterketan* ere, Sakanako emakumeak martxan!